

JOKABIDE ARAUAK

I. SARRERA

Jokabide Arau hauek Guggenheim Bilbao Museoari (“Museoa”) eragiten diete. Museoaren barruan sartuta daude Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen arabera eratutako kultura-fundazio pribatua; Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL sozietatea, Guggenheim Bilbao Museoaren arte-bildumaren jabea dena; eta Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL sozietatea, Museoaren eraikinaren jabea. Erakunde hauetako bakoitzean Jokabide Arauen irismena eta aplikatzeko esparrua haien helburu sozialaren izaerak eta erakunde horietako bakoitzak betetzen dituen zereginen izaerak zehaztuko dituzte.

Jokabide Arauak dira: Museoaren kudeaketan, jardunean eta funtzionamenduan esku hartuko duten pertsona guztiek —maila hierarkikoan edozein lekua dutela ere— aginduz kontuan hartu behar dituzten jokabideak eta arau orokorrak. Jokabide Arau horiek, bereziki, langileek, zuzendaritzako kideek, gobernu-organoetako kideek, boluntarioek, hornitzaileek eta laguntzaileek (guztiak, aurrerantzean, “profesionalak” edo “pertsonek” deituko ditugu) bete beharko dituzte, Museoarekin duten erlazio motaren arabera.

Jokabide Arau hauekin batera, guztiek kontuan hartu eta bete beharreko hainbat Barne Prozedura ditu Museoak. Erakundea bere ibilbide osoan eraikiz joan den jardunbide eta praktika egoki horiek gure funtzionamendu-prozeduretan sartuta daude, baita planetan, programetan, ziurtapenetan eta, oro har, kudeaketa-politiketan ere, Eranskinean zehaztu bezala.

Museoaren Jokabide Arauen eta Barne Prozeduren multzoaren helburu dira: arauak betetzeko kultura korporatiboa osatzea eta, Museoaren funtzionamendua eta jarduteko modua hobetzeko, kudeaketa eta prebentzio erabilgarri eta eragingarriko eredu baten aldeko gobernu-organoen konpromisoa indartzea. Museoak eta bertako profesionalak ondo dakite ondorio larriak izango direla Jokabide Arau eta Barne Prozedura hauek urratzen dituen pertsonarentzat zein erakundearentzat berarentzat.

Gainera, Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Batzorde Betearazleak eta

Patronatuak, 2015eko abenduaren 14ko bileran, eta Tenedora eta Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, SL sozietateen administrazio-kontseiluek, 2016ko martxoaren 17ko bileran, kode etiko bat onartu zuten. Bertan biltzen dira, ikuspegi arduratsu eta etiko batetik, Museoaren banakako eta taldeko jokabideetan nagusi diren jarduteko printzipioak eta praktika egokiak. Hauek, gainera, ondorengo kapituluan aipatuko diren Jokabide Arauen oinarri dira.

II. JOKABIDE ARAUAK

1. LEGERIA ETA JOKABIDE BETEBEHARRAK BETETZEA

1.1. Museoak eta bertako profesionalek beti beteko dituzte indarrean dagoen legedia, Jokabide Arau hauek eta Museoaren Barne Prozedurak. Halaber, hirugarrenekin egindako kontratu-erlazioetan euren gain hartutako betebeharrak eta konpromiso guztiak errespetatuko dituzte.

1.2. Une oro, profesionalek zintzotasunez, zuzentasunez, arduraz eta pertsonetikiko eta, erakunde gisa, Museoarekiko leialtasunez jardungo dute. Guggenheim markaren irudi zein izen on eta ospea zaintzen lagunduko dute.

2. AUKEREN BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN ALDEKO POLITIKA AKTIBOA

2.1. Laneko errendimenduaren optimizazioa eta profesional guztien errespetuan, konfiantzan eta elkarlanean oinarritutako pertsonen arteko harreman ona elkarri lotuta daude. Sexuan oinarritutako jazarpen eta jazarpen sexual edo moralaren edozein egoera ekiditeko konpromiso irmoa hartzen du Museoak bere gain, egoera horiek duintasunaren aurka baitoaz, lan-ingurunea kaltetzen baitute eta pertsonen osasunean, moralean, konfiantzan eta autoestimuan nahi ez diren ondorioak eragiten baitituzte. Jazarpen-egoerak, sexuan oinarritutakoa, sexuala edo morala izan, ikertzen dituzten politikak eta prozedurak garatu ditu Museoak. Horren adibide dira, besteak beste, “Sexuan oinarritutako jazarpen eta jazarpen sexual edo moralaren kontrako protokoloa” eta “Hizkera ez-sexista erabiltzeko eskuliburua”, guztiak derrigorrez bete beharrekoak.

2.2. **Bertako profesionalen arrazagatik, nazionalitateagatik, jatorri sozialagatik, adinagatik, sexuagatik, egoera zibilagatik, sexu-orientazioagatik, ideologiagatik, iritzi politikoengatik, erlijioagatik edo izaera pertsonal, fisiko edo sozialeko beste edozein arrazoiengatik diskriminaziorik eza sustatzen du Museoak.** Funtsezko arau hau betetzeko, bateragarritasunaren inguruko gaian Zuzendaritzaren konpromisoa eta “Berdintasun-plana” (kudeaketa-politikaren ardatz nagusietako bat) azpimarratzen dira.

2.3. **Halaber, Museoak pertsonen aukera-berdintasuna bermatuko du aukeraketa-, kontratazio-, prestakuntza- eta sustapen-prozesuetan eta tratu pertsonalean, betiere irizpide objektiboei lotuz.** Horretarako, Museoak “Lanean hasteko eta langileen barne-sustapenerako prozedura”, “Pertsonen poztasuna eta konpromisoa neurtzeko prozedura” eta “Lan-jarduera ebaluatzeko prozedura” onartu ditu. Prozedura horiek era arduratsuan aplikatu behar dira.

2.4. Gaitasunak kontuan hartu gabe, pertsona guztien eskubideen eta aukeren berdintasunaren aldeko konpromiso sozialaren barruan, Museoak desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen lagunduko duten politika aktiboak garatzeko konpromisoa hartzen du, funtsezko baldintza baita gizarte zuzenagoa eta justuagoa eraikitzeko. Helburu horrekin hartu du Museoak Irisgarritasun Unibertsala kudeatzeko

sistema: pertsona guztiei, haien adina edo desgaitasuna edozein direla ere, eraikitako ingurunearen edozein lekutan sartzeko aukera berberak emango dizkiena eta eskainitako zerbitzuak ahalik eta autonomia handienarekin erabiltzeko eta gozatzeko aukera bermatuko diena. Halaber, aniztasuna onartzen den ingurunean desgaitasunen bat duten pertsonak erabat integratzea lortzeko laguntza-neurriei buruzko informazioa partekatzen du Museoak bere langileekin.

Orain arte bezala, desgaitasuna duten pertsonak lan mundura sartzeko laguntzen diharduten erakundeekin elkarlanean jarraituko du Museoak.

2.5. Museoak bertako profesionalen bizitza pertsonala eta familiakoa errespetatzen ditu, eta bizitza horren eta lan-arloko erantzukizunen arteko oreka hobetzen lagunduko duten bateragarritasun-politikak sustatzeko konpromisoa hartzen du. Gai horren barne hartutako ekimenak antolakuntzaren funtsezko printzipio honen aldeko adibide argiak dira; besteak beste: “CONCILIARTE plana”, “Haurdunaldia babesteko prozedura”, “Optima batzordea” eta “Familiarekiko Arduratsu den Enpresa” ziurtagiriaren arabeko bateragarritasuna kudeatzeko sistema bat ezartzea eta azken horretan aitzindaria izatea.

2.6. Museoak bertako profesionalen intimitaterako eskubidea bermatzen du. Printzipio horren arabera, Museoak lanean teknologia berrien, informatikako ekipoen eta bertako profesionalen esku jartzen dituen beste tresna batzuen erabileraren erregulazioa bideratzen du. Haietan baimendutako erabilerak, debekatutakoak eta tresna horiek zuzen erabiltzen direla gainbegiratzeko Museoak dituen ahalmenak zehazten dira, “Datu-babeserako politikan” jasotzen den bezala.

2.7. Museoak bertako profesionalen prestakuntza sustatuko du, bikaintasuna bilatzeko eta karrera profesionalaren etengabe garatzeko tresna gisa.

3. SEGURTASUNA LANEAN

Laneko Arriskuen Prebentzioa ziurtatzea eskaera etikoa, legezkoa eta soziala da, eta erakundea modernizatzeko eta hobetzeko beste elementu bat bezala integratu behar da, hierarkiako edozein mailetako langile guzti-guztien inplikazioaren eta parte hartzearen bidez.

Laneko baldintzak, ongizatea, eta laneko giroa eta giro profesionala hobetzea, batetik, eta lan-istripuak eta lanaren ondoriozko gaixotasun-indizeak murriztea, bestetik, daude enpresa-kudeaketa etengabe hobetzeko zikloaren barruan.

Antolakuntzaren maila guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetuko duen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezartzea ezinbesteko elementua da prebentzioko jarduerak arrakasta izateko, eta erakundean prebentzio-kultura sustatzeko eta garatzeko.

Museoak Laneko Arriskuen Prebentziorako Plan bat ezarri du. Bertan, erakundearen lan-osasunaren funtsezko oinarriak eta helburuak ezarri dira, eta profesionalen obligazioak finkatu dira. Profesional horiek bereziki kontuan hartuko dituzte plan eta eskuliburu askotan bildutako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak, laneko arriskuak prebenitzeko eta minimizatzeko helburuarekin.

4. GARDENTASUNA KUDEAKETAN ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

4.1. Zuzentasun- eta gardentasun-printzipioak nagusituko dira erakundearen kudeaketan. Horretarako, Museoak mekanismo baliagarriak ditu, adibidez, “Inbertsioen politika”, “Finantza-kudeaketa- eta -kontrolerako prozedurak”, “Artelanak eskuratzeko prozedura”, “Kontratuziorako barne-jarraibideak” eta abar. Aipatutako horiek derrigorrez bete behar dira kudeaketa operatiboa garatzean.

Museoko profesionalak konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Erakundearen izen onaren eta finantzaketaren arteko oreka bermatu, edozein donazio-edo lankidetzaz- eskaintza sakon aztertuz. Zentzu horretan, Museoak ez ditu onartuko jatorri ezezaguneko donazioak, legez kanpoko ekintzetatik edo delituzko jokaeretatik etor daitezkeenak, ezta Museoaren etikaren kontrakoak direna ere.
- Lan-prozesuen etengabeko ebaluazioa egin eta, prozesuotan, ikuspegi ekonomikoa indartzeko behar diren hobekuntzak eta sinergiak sartu.
- Museoaren espazioak egokitu eta albat gehien aprobetxatu, horien erabilera efiziente bat egitearren, eta dagokionean, geure buruaren finantzaketan lagun dezakeen errentagarritasuna lortu.
- Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko prozesuetan, objektibotasun, gardentasun eta lehia librearen printzipioak jarraitu.
- Museoak garatzen dituen jarduera ekonomikoak bere Misioa betetzera eta interes publikoko helburuak lortzera bideratu.
- Erakundeak Museoaren profesionalen eskueran jartzen dituen aktiboak galdu, kaltetu, lapurtu edo legez kanpo erabil ez daitezzen babestu eta gorde.
- Museoaren ondasunak eta instalazioak helburu hertsiki profesionaletarako erabili, eta justifikatu gabeko edozein erabilera eragotzi.

- Baliabide eskuragarriak modu arrazionalen eta efizientean erabili, ingurumenaren errespetua dakarren energia-aurrezpena bilatuz.
- Baliatutako material guztiak berrerabili eta birziklatu, erakusketa-jardueran bereziki, etorkizuneko proiektuetan edota beste kultura-eragile batzuek aprobetxatzea bilatuz eta, horretarako, iraunkortasun-irizpideak oinarritzat hartuz.

4.2. Profesionalak Museoaren Ustelkeriaren aurkako Politika ezagutzera eta zorrotz betetzera behartuta daude. Politika hori honako Arau hauetan oinarritua dago:

4.2.1. Jarduketa-arauak funtzionario publikoekin (nazionalak eta atzerrikoak) dauzkagun harremanetan

a) Debehatuta dago estatuko edo atzerriko funtzionario edo enplegatu publiko bati, zuzenean edo hark ezarritako edo hari lotutako pertsonen bitartez honakoa eskaintzea edo entregatzea:

(i) opari, ordainsari, mesede edo zerbitzua, horren balio ekonomikoa edozein dela, baldin eta, esplizituki edo inplizituki, haren truke funtzionario horrek Museoaren aldeko erabakia hartzeko baldin bada;

(ii) opari, ordainsari, mesede edo zerbitzua, horren balio ekonomikoa edozein dela, baldin eta, zuzenean edo zeharka, Museoaren alde funtzionario horrek aurretik hartutako erabaki baten ordainsaria bada;

(iii) opari, ordainsari, mesede edo zerbitzua, baldin eta bere balio ekonomikoa, apartekotasuna, berezitasuna edo beste edozein arrazoi kontuan hartuta, erabilera arrunt, sozial eta adeitasunezkoetatik haratago bada.

Era berean, debehatuta dago funtzionarioak edo enplegatu publikoak aurreko puntuetan aipatutako opariak, ordainsariak, mesedeak edo zerbitzuak entregatzeko eskaera onartzea.

b) Debehatuta dago estatuko edo atzerriko funtzionario edo enplegatu publiko batengan eragina izatea:

(i) funtzionario edo enplegatu publiko jakin horrekin edo beste funtzionario edo enplegatu batekin aurretik zegoen harreman pertsonal batez (senidetasuna, adiskidetasuna, elkarren arteko negoziok, etab.) baliatuta,

(ii) Museoaren interesen aldeko erabaki bat lortzeko helburuarekin.

c) Ez da baimena jaso beharrik izango opari korporatiboak balio txikia edo hutsala duenean.

4.2.2. Jarduketa-arauak sektore pribatuko harremanetan (bezeroekin, hornitzaileekin, laguntzaileekin, beste museo batzuekin, etab.)

a) Debekatuta dago edozein enpresa edo erakunde pribatuko zuzendari, administratzaile, enplegatu edo laguntzaile bati, zuzenean edo hirugarren baten bitartez, opariak, ordainsariak, mesedeak edo zerbitzuak hitzmatea, eskaintzea edo ematea, haiek, zerbitzu profesionalen kontratazioan euren betebeharrak bete gabe utziz, beste zentro batzuen aurrean Museoaren alde egiteko.

b) Debekatuta dago bezeroei edo hornitzaileei opariak eskaintzea edo ematea, opari horiek dirua edo honen baliokide izan daitekeen beste edozein modu (txekeak, transferentziak, etab.) direnean; eskaintzen den opariak edo erregaliak balio txikia edo ia baliorik ez duenean izan ezik.

c) Debekatuta dago bezeroei edo hornitzaileei opariak, mesedeak edo justifikatu gabeko edozein motatako abantailak eskatzea, norberarentzat edo hirugarren batentzat.

d) Debekatuta dago bezeroen edo hornitzaileen opariak onartzea, opari horiek dirua edo honen baliokide izan daitekeen beste edozein modu (txekeak, transferentziak, etab.) direnean.

e) Bezeroengandik edo hornitzaileengandik jasotako ohiko erabileren, erabilera sozialen edo adeitasunekoan edozein opari edo arreta jaso izana Batzorde etikoari jakinarazi beharko zaio e-mail bidez: cetico@guggenheim-bilbao.es; eta igorri duen pertsona edo erakundea identifikatuko da.

Jakinarazpen hori ez da beharrezkoa izango jasotako opariak edo erregaliak balio txikia edo

hutsala duenean.

Batzorde etikoak eskatzaileari idatziz (e-mail) erantzungo dio, oparia jasotzeko baimena duen ala ez. Baimena ukatzen bazaio, eskatzaileak opariari uko egingo dio edo, dagoeneko jaso badu, igorri dionari itzuliko dio, eta itzulpen hori egokitzat edo bidezkoztat jotzen ez bada, erabakiko diren helburu solidarioetara bideratuko da oparia.

f) Zuzkitzaileekin eta hornitzaileekin kontratatzean, objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideak beteko ditu Museoak. Profesionalek euren inpartzialtasuna eta objektibitate profesionala alda dezaketen bezeroen, hornitzaileen edo hirugarrenen edozein motatako interferentzia edo eragina ekidingo dute.

g) Hitzaldiak emateko edo eztabaida-batzordeetan edo antzeko ekitaldietan parte hartzeko gonbiteak, salbu eta alde zuzeneko kualifikazioen edo jarduera profesionalen arabera egiten denean eta ekitaldi horietan parte hartzeko arrazoia Museoaren zereginetatik kanpora erabat kokatzen denean, Museoari jakinarazi behar zaizkio, azken honek onar dezan, dagozkion barneko politikekin bat etorritik kudeatuta.

h) Profesionalek, lan-arrazoia tarteko desplazatu behar direnean, garraioaren, ostatuaren eta mantenuaren zenbatekoa ordaintzea baino ez dute onartuko, eta baztertu egingo dute beste edozein ordainketa, ordainsari edo komisio.

i) Hirugarren pertsona fisiko edo juridikorengandik Museoan edo bere funtzionamenduari lotuta egindako jarduera profesionalengatik eta zerbitzuengatik dirurik, komisorik edo beste ordainketarik ezingo dute hartu profesionalek.

4.2.3. Jarduketa-arauak alderdi politikoekin lotuta

a) Museoak ez du alderdi politikoaren finantziarioarekin lotutako debekatutako edozein jarduera burutuko. Bereziki, indarrean dagoen araudia betez, debekatuta dago Museoak alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-taldeei edozein motatako donazio edo ekarpen egitea, kopurua eta forma edozein izanda ere.

b) Aurreko debekuak alderdi politikoei lotutako edo hauen mendeko fundazioei eta erakundeei egiten diren donazioei eta ekarpenei ere aplikatuko zaizkie, Alderdi Politikoak

Finantzatzeko uztaileen 4ko 8/2007 Lege Organikoaren Zazpigarren Xedapen Gehigarrian
aurreikusitako baldintzetan.

5. INTERES GATAZKAK

Museoko profesionalek edozein interes-gatazka saihestuko dute eta, betiere, jakinarazi egin behar dute baldin eta erabaki edo ekintzaren batek haien interesak eta erakundearenak bateraezin egiten baditu. Batez ere, honako hauek:

5.1. Ez dute parte hartuko, aldez aurreko baimenik gabe, Museoarekin interes-bateraezintasuna eragin dezaketen negozioetan edo jarduera ekonomikoetan eta, inolaz ere ez, Museoarekin leialtasun-falta dakartenean.

5.2. Ezingo dira haren hornitzaileak edo zuzkitzaileak izan, ezta Museoaren ondasunik eskuratu edo errentan hartu baimenik gabe.

5.3. Ez dute eraginik egingo kontratuen edo baimenen esleipenen edo emakiden baldintzetan onuradunen baitan interes bereziak dituztenean, eta ez dute esku hartuko haien objektibotasunari eragin diezaiokeen arrazoiren bat dagoen ezein gaitan.

5.4. Ez dute esku hartuko edo onartuko akordiorik edo transakziorik hornitzaileekin, artistekin, bitartekariekin edo aholkulariekin Museoaren izenean haiekin ahaidetasun-erlazio bat edo enpresa-lokarri edo -interes bat baldin badute; hori egin ahal izateko, aurrez, horren berri eman eta espresuki baimena lortu behar dute.

5.5. Ez dira Museoan duten posizioz baliatuko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko; halaber, ez dituzte aprobetxatuko euren jardunbide profesionalaren ondorioz ezagutu ditzaketen negozio-aukerak.

6. KAPITALEN ZURITZEA ETA TERRORISMOAREN FINANTZIAZIOA PREBENITZEA

Kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruzko araudiaren arabera, arteko objektuak edo antigoaleko gauzak arreta berezia merezi duten ondasunak dira. Izan ere, profesionalki arte-objektuak edo antigoaleko gauzak salerosten dituzten pertsonak kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantziarioaren prebentzioari buruzko araudia derrigorrez bete behar duten subjektutzat jotzen dira. Fundazioak eta, oro har, elkarteak ere hala dira.

Museoak eta bertako profesionalek, une oro, kapitalen zuritzea eta terrorismoaren finantziarioa prebenitzeari buruzko araudia beteko dute.

Gai honetan Museoaren arauak eta prozedurak Kapitalen Zuritzea eta Terrorismoaren Finantziarioa Prebenitzeko Eskuliburu batean jasoko dira. Museoko kide guztiek derrigorrez bete beharko dute bertan jasotakoa.

7. INGURUMENA ZAINTEA

Museoak burutzen duen jarduerak ez du eragin handirik ingurumenaren gainean. Hala eta guztiz ere, Museoaren ezaugarri den bikaintasunaren etengabeko bilaketa ere atzeman daiteke ingurumena hobeto babesteko eta baliabide naturalak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko eskaintzen duen laguntzan. Horren guztiaren ondorioz Museoak ISO 14.001 arauaren arabera ingurumeneko kudeaketa-sistema ezarri du.

8. KONFIDENTZIALTASUNEN OBLIGAZIOA

8.1. Museoak indarrean dauka “Datuen Babesteko Politika”. Museoak, gainera, Segurtasuneko Arduraduna dauka arlo honetan.

Datu pertsonalak dira identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisiko bati buruzko edozein informazio (izena eta abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, IFZ, telefono-zenbakia).

Inola ere ezingo dira profesionalen datu pertsonalak legeak agindutakoak eta kontratu bidez aurreikusitakoak ez diren helburuetarako erabili.

Datu pertsonalak gordetzen dituen dokumentazioa (fisikoa edo elektronikoa) konfidentzialtasun bereziz erabili beharko da: Museoan betetzen dituen funtzioengatik datuak ezagutzeko beharrik ez duen inork ez ditu datu horiek eskuragarri edukiko.

8.2. Museoak indarrean dauka “Informazioaren Segurtasun Politika” bat. Politika honek informatikako sistemen eta sareen egitura eta antolakuntza erregulatzen du, baita egon daitezkeen sarkinkerien aurrean haien funtzionamendu eta babes egokiak bermatzen dituzten mekanismoak eta tresnak ere.

8.3. Museoak eta bertako profesionalak honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Isilpeko edo Museoko lan-jarduerari esker ezagututako informazioa inongo arrazoi edo zirkunstantzian ezagutzera ez ematea, ezta Museoarekin erlazioa amaitu denean ere.
- Hirugarrenei edo hedabideei nor bere zereginetan edo Museoko loturaren ondorioz lortutako informazioak ez ematea. Betebehar horrek indarrean jarraituko du lotura hori amaitzean ere.
- Museoaren segurtasunari edo funts artistikoei buruzko informazioari dagokionez, isilpekotasun zorrotza gordetzea.
- Datuen, dokumentuen eta, oro har, beste enpresa eta erakunde batzuetatik lortutako eta haien negozioaren know how eta erreserbatutako esparruari dagozkien informazioekiko errespetu eta konfidentzialtasun handiena erakustea.

9. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Museoak bere eguneroko jardueran etengabe harremanetan dago obra eta sorkuntza artistikoekin, literarioekin eta musikalekin, baita diseinu arkitektonikoekin, museografikoekin, eta jabetza intelektualaren bidez babestutako hainbat materialekin eta formaturekin ere. Museoak eta bertako profesionalek obra eta sorkuntza guztien erabilera eta tratamendua erabat errespetatzen dituzte, baita haien egileen edo titularren eskubideak ere.

Kultura ikertzeko eta ezagutzera emateko zereginetan, Museoak, sarritan, jabetza intelektualak babestutako objektuak helburu hauekin erabiltzen ditu: analisia eta iruzkina egiteko edo iritzi kritikoa emateko; jarduera didaktikoak eta hezkuntzakoak irakasteko; Museoaren programazioari eta gaur egungo gertakariei buruz informatzeko. Hori guztia, helburu komertzialik gabe eta Museoaren funtzionamendua identifikatzen duten irabazi-asmorik gabeko xedeen esparruan.

Museoko profesionalek zehatz-mehatz beteko dituzte jabetza intelektualak erregulatzen duen araudia eta barne-prozedurak. Horregatik, edozein motatako sorkuntza erreproduzitu, publikoki adierazi, banatu edo, beste edozein modutan, ustiatu aurretik, Museoak lan horien egileengandik/titularrengandik/kudeaketa-erakundeetatik behar dituen baimenak eta lizentziak eskuratu beharko ditu eta, hala badagokio, lan horien ondoriozko royaltiak ordaindu beharko ditu.

Arau horiek ere beteko dira Museoaren Denda/Liburudendako artikuluen produkzioan eta salmentan.

Bestalde, Guggenheim Bilbao Museoaren eraikinaren adierazpen grafikoak marka erregistratua da, eta Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa da haren titularra. Hori ustiatzeko "Museoaren irudia erabiltzeko prozedura" bete behar da. Bertan jasotako arauak hirugarrenei baimenak eta lizentziak emateko hipotesiak eta baldintzak erregulatzen dituzte. Era berean, Museoak eta bertako profesionalek hirugarrenen patenteak, markak, ereduak eta jabetza intelektualeko beste objektu batzuk erabiltzeko errespetu osoa erakusten dute; erabilera bakoitzaren aurretik behar diren lizentziak eskuratu beharko baititu haiengandik.

10. ARTELANEN ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO ARAU OROKORRAK

- Erakusketak bat etorri behar dira Zereginarekin zein Museoaren politika eta helburuekin.
- Erakusketek modu duinean erakutsiko dituzte artelanak, betiere nazioarteko museo-estandarrak betez.
- Erakusketetan ematen den informazioa oinarritua, egiazkoa eta akademikoki zuzena izan behar da. Gainera, bisitarien aniztasun horren tipologia kontuan hartu behar du, eta bat etorri aurreikuspenen aukera zabal batekin. Horretarako, behar arreta jarriko zaie espero daitezkeen sinesmenei edo taldeei.
- Erakusketen museografiak eragileen arteko oreka bilatuko du: mailegatzailak, artapen-estandarrak, arte-objektuen segurtasuna eta ikusleen atsegina.
- Giza hondakinak edo objektu sakratuak dituzten artelanak tentu handienaz jarriko dira erakusgai. Artelanen artean, animalia biziak baleude, arreta jarriko zaio haien ongizateari.
- Erreplikak, erreproduzioak edo kopiak erakutsiz gero, Museoak jatorrizkoaren osotasuna errespetatuko du, eta adierazi ere egin behar du erakutsitako objektuak kopia edo facsimile direla.
- Museoak zorrotasunez, errespetuz eta begirunez aztertuko ditu erakusketen edukien inguruko komunitatearen iradokizunak.
- Erakusketetan edo antzeko erabileretan ez dira ipiniko jatorri zalantzakoa edo ezezaguna duten objektuak, ezta objekturik erakutsiko ere harik eta seguru egon arte baliozko jabetza-titulua dutela, jatorrizko herrialdetik legez kanpo esportatu ez direla eta espoliatuz, giza eskubideak urratuz, ondarea hondatuz edo suntsituz lortu dituztela pentsatzeko arrazoirik ez dagoela.
- Zuhurtasun handienaz aztertuko dira Museoarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten eta Museoan erakusteko artelanak eskaintzen dituzten hirugarren pertsonen kasuak.
- Arte-arduradunak Museo barneko zein kanpoko beste profesional batzuekin lan egingo dute erakusketen osotasuna mantentzeko eta erakundearen interesak zaintzeko.

- Arte-arduradunak azken arte-ekoizpenen jakinaren gainean egongo dira, baita ikerketa akademikoaren aurrerapenei eta nazioarteko museogintzaren gaurkotasunari buruz ere.
- Museoaren politikak eta interesek arautuko dituzte Bildumara erosketaz, dohaintzaz, ematez zein oinordetzan artelanak gehitzeko arte-arduradunen gomendioak.
- Arte-arduradunek Bildumako artelanen osotasun intelektualean lagunduko dute, dokumental-funts bat eratzea segurtatuz.
- Bildumaren artelanak mailegatu edo mailegatzea ukatzeko irizpideak arte-arduradunen iritziei edo artapen arrazoiei lotuta egon behar dira hertsiki.
- Arte-arduradunek ez dute onura pertsonalik aterako Museoko langile izatearen ondorioz artista, mailegatzailer, babesle, bildumagile, galerista eta abarrekin sor daitezkeen edozein erlazio pribilegiatutik. Ez dute baliatuko ere haien postua beren, senitartekoen edo hurrekoen arte-bilduma bultzatzeko.
- Arte-arduradunek ez diete zerbitzu profesionalik emango bildumagileei, merkatariei eta gainontzeko arteko profesionali, adibidez: aholkularitza, autentifikazioa, tasazioa, etab. Gainera, interes-gatazka sor dezakeen edozein egoeraren berri emango dute.
- Arte-arduradunek, Museoko gainontzeko profesionalak bezala, ez dituzte onartuko euren erabakietan eragin edo Museoaren Bildumaren jarduerari traba egiten dioten jite artistikoko opariak. Halaber, horrelako egoeren berri emango dute gardentasun osoena bermatzeko.
- Museoaren profesionalak zuhurtasun osoz jokatu dute bazkari, afari edo beste aisialdi-ekintzetara joateko gizabanakoek zein erakundeek eskaintzen dizkieten gonbitei gatazka ekar dezakeen interes komertziala dagoenean.
- Ordainduak izan edo ez, erakundearen egiten dutenaren antzeko kanpoko jardueretan parte hartzen duten profesionalak haien jardueren berri eman behar diote Museoari, eta Museoak bere gain hartzen du eskubidea erabakitzeko profesional horiek erakundearen ordezkari gisa jokatu behar duten, edo haien buruaren izenean baino ez, baita partaidetza ukatzeko ere.

11. ARTELANEN EROSKETAREKIN ETA BAJAREKIN LOTUTAKO ARAU OROKORRAK

- Museoak prozedura bat du indarrean artelanak eskuratzeari buruz, betiere salbuespenik gabe bete beharrekoa.
- Eskuratzeko aztertzen diren artelan guztiei buruzko ikerketa zorrotz bat egiten da benetakoak direla eta kalitatea zein garrantzi historikoa dutela segurtatzeko.
- Ez da batere artelanik eskuratuko erosiz, dohaintzaz, maileguz, oinordetzan edo elkartrukez harik eta seguru egon arte jabetza-titulua dutela, jatorrizko herrialdetik edo bitarteko herrialde batetik legez kanpo esportatu ez direla eta espoliatuz, giza eskubideak urratuz, ondarea hondatuz edo suntsituz lortu dituztela pentsatzeko arrazoirik ez dagoela.
- Bildumara artelanak gehitzeko, arte arduradunen irizpide objektiboak aintzat hartu behar dira beti, baita Museoaren politika eta interesekin bat datozenak ere.
- Ez da eskuratuko giza aztarnarik, ezta hondar arkeologikorik edo sakraturik ere. Hondar horietako batzuk artelan baten zati izango balira, Bildumara gehituko dira, baldin eta hondar horiek segurtasunez gorde eta dagokion errespetuz erabili badaitezke.
- Artelan batek eduki biologiko, espezipimen botaniko edo geologiko biziak dituenen, Museoak segurtatuko du jatorria ez dela bizi/historia naturala babesten duten legeen edo araudien kontrakoa, dagokion herrialdeko agintarien berariazko baimena izan ezean.
- Objektuen baja artelanaren garrantzia, izaera (berriztagarria edo ez) eta kondizio juridikoa osoki ezagutuz bakarrik egingo da, eta behar bezala adierazi behar da agirietan. Gainera, baja ezin da interes publikoko Zereginaren kaltetan joan inondik ere.
- Museoaren Bilduma zaintza publikoko ondasuna denez, ezin da aktibo egingarritzat hartu. Beraz, Bildumako artelanei baja ematearren jasotako diru-sarrerak edo ordainak haren onuratan erabiliko dira eskusiban.
- Museoko langileek, edo senitartekoek edo hurrekoek ezin dituzte Museoaren Bilduman bajaran emandako artelanak eskuratu.

12. ARTELANEN ERREGISTROAREKIN, DOKUMENTAZIOAREKIN ETA KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ARAU OROKORRAK

- Museoaren Bildumaren artelan guztiak, gordailuak eta aldi baterako erakusketetarako maileguak behar bezala erregistratu eta dokumentatu behar dira.
- Museoak kasu guztietan eta salbuespenik gabe errespetatu beharreko prozedura hauek ditu indarrean: (i) Museoaren Bilduma kudeatzekoa; (ii) maileguak (ingoing/outgoing) kudeatzekoa; (iii) artelanen hornikuntzen inbentarioa kudeatzeko eta kontrolatzekoa; (iv) artelanak sartzeko prozedura; eta (v) Museoaren Bilduma agirietan adierazi eta inbentariatzekoa prozedura.
- Museoak badauka eta etengabe eguneratzen du Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumari buruzko estatu barruko zein nazioarteko estandarrekin bat datorren dokumentu-funts bat.
- Artelanak ikertuz, aztertuz edo kontserbatuz eragindako jarduerak eta aurkikuntzak behar bezala adieraziko dira agirietan, eta horren ondorioz eskuratutako informazioaren berri publikoki zabalduko da.
- Museoak konplitu egingo ditu bere ardurapean egindako artelanen eskurapen, inportazio-espportazio, erakuste edo lekualdaketei eta horietatik eratorritakoei buruzko betekizun guztiak; bereziki aduanen kudeaketari eta espportazio eta inportazio baimenei dagozkienak.
- Museoaren Bildumako artelan guztiak, gordailuak eta aldi baterako erakusketetako maileguak arrisku orotako aseguru baten babesean izango dira.
- Museoko profesionalak, haien senitartekoak edo hurrekoak ezin dira inolaz ere erakundeak zaindutako arte-objektuez jabetu haien erabilera pertsonalerako, ezta aldi batez ere.
- Erakundeak artelanei eta horien jabe edo mailegatzailerei buruzko datuen babes-politikak dauzka eta izango ditu indarrean, isilpean geratzen direla bermatzeko.

13. ARTELANEN ARTAPENAREKIN ETA BABESAREKIN LOTUTAKO ARAU OROKORRAK

- Bildumako artelanak, baita gordailuak eta aldi baterako maileguak ere, horien izaera edozein dela ere, artapen- eta babes-irizpide berdinei lotuz tratatuko dira.
- Museoak kasu guztietan eta salbuespenik gabe errespetatu beharreko prozedura hauek ditu indarrean: (i) artelanen prebentzioko artapena eta artapen zuzentzailea egiteko prozedurak; (ii) artelanen enbalajeak fabrikatzeko prozedurak; eta (iii) artelanak erabiltzeko eta instalatzeko zehaztapenen eskuliburua.
- Artelanak kontserbatu, zaindu eta erabiltzeko ardura profesionala esperientzia, kualifikazioa eta ezagutza egokiak dituzten pertsonen esleutuko zaie eskusiban.
- Museoak prebentzioko artapen-politika bat du indarrean. Era horretan, ingurune egoki bat sortu eta eduki dezake Bildumako artelanak eta biltegirotutako, erakusgai dauden eta bidean diren gordailuak eta maileguak babesteko.
- Museoak larrialdi- eta segurtasun-planak ditu ager daitezkeen arriskuen kontra —natur hondamendiak, istripuak, pertsonen eragindako istiluak eta abar— artelanen osotasuna babesteko, erakusgai edo biltegirotuta daudela ere.
- Bai lekualdaketak, bai manipulatu eta instalatzeko prozesuak, garraioko eragile espezializatuek eta artelanak erabiltzen adituak diren langileek egin ditzakete bakarrik. Lan-baldintza onenak eta biltegirotatze seguru eta egokituak bermatu behar dira.
- Museoak prebentzioko artapen-ekintzak bermatu egingo ditu, baita zaharberritzeak ere, betiere funtsak kontserbatzeko beharrezkoa bada.
- Prebentzioko artapen eta zaharberritzerako tratamendu guztiak behar bezala adierazi behar dira agirietan eta, ahal den neurrian, itzulgarriak izan behar dira, eta, era berean, jatorrizko objektuaren eraldaketa oro argi eta garbi identifikatzeko modua egon behar da.
- Beste baten arte-funtsen kasuan, ez da artelan batean esku hartuko jabearen edo erakunde kudeatzailearen alde aurreko baimenik gabe, salbu eta larrialdi-egoera batean.

14. IKERKETAREKIN ETA ARTXIBOAREKIN LOTUTAKO ARAU OROKORRAK

- Museoaren profesionalek burututako ikerketek Museoaren Zereginarekin eta helburuekin lotura izan behar dute, baita bat etorri ere ezarritako praktika etiko eta akademikoekin.
- Museoaren profesionalek sektoreko beste ikertzaile, aditu eta aztertzaileekin partekatuko dituzte haien ezagutzak eta esperientzia.
- Museoak behar bezala atondutako dokumentazio-zentro batean gordeko du bere ondare bibliografikoa, eta erabilgarri izango da, doan, jendearentzat. Horrek ondare hori etorkizunerako gordetzen lagunduko du eta, hartara, dibulgazio-, heziketa- eta gizarte-lana beteko du.

III. SALAKETAK BIDERATZEA

Museoko profesional guztiek Betetze Programaren arau-haustea edo delituak egiteko arriskua eragiten duten edo eragin dezaketen gertakariak ezagutzuz gero, gertakari horiek erakundeari jakinarazteko obligazioa dute.

Fede onez gertakari bat salatzen duen inork ez duela arrazoi horrengatik inolako errepresaliarik edo ondorio kaltegarririk jasango bermatzen du Museoak.

Hori hala izango dela bermatzeko, Museoak Salaketak Bideratzeko Protokolo bat dauka. Protokolo horrek ustezko irregulartasunak Arrisku Penalen Prebentzioko Batzordeari zuzenean eta konfidentzialtasun osoz jakinarazteko prozedura sortu eta arautzen du.

IV. EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Jokabide Arau hauek eta Museoaren Barne Prozedurak betetzen ez badira, dagozkien diziplina-zigorrek jarriko dira edo, arauak urratzen dituenaren eta Museoaren arteko erlazio motaren arabera, dagozkion neurriak hartuko dira. Kasu horretan, bien arteko harremana amaitu daiteke. Hori guztia, Museoak onartutako irregulartasunak atzemanaz gero, Jarduketa Protokoloan araututakoan ezarritakoa beteko da.

ERANSKINA

Ondoren, Guggenheim Bilbao Museoak ezarritako prozedura, eskuliburu, politika, ziurtagiri eta programa adierazgarrienak, baina ez bakarrak, zehazten dira:

Enpresa Batzordea

Segurtasun eta Lan Osasun Batzordea

OPTIMA batzordea

Gardentasun-konpromisoa (2015ean, Estatuko museo gardenenaren aitortza jaso zuen)

Zuzendaritzaren konpromisoa bateragarritasunaren inguruko gaitan

Hitzarmen kolektiboa

Emakunderen erakunde laguntzailea

Sarbide, akreditazio eta zainketari buruzko segurtasun-jarraibideak: (i) Museoko langileen sarrera; (ii) hornitzaile eta kontratatuko langileen sarrera; (iii) identifikazio- eta akreditazio-txartelak; (iv) lanpostu iraunkorrak

Kontrataziorako barne-jarraibideak (Fundazioa, Inmobiliaria eta Tenedora)

Bisitarien arretarako eskuliburua

Artelanak erabiltzeko eta instalatzeko zehaztapenen eskuliburua

Estilo-liburua

Suteen aurkako babes-liburua

Protokoloaren eskuliburua

Hizkera ez-sexista erabiltzeko eskuliburua

CONCILIARTE plana

Harrera-plana

Larrialdietarako plana

Artelanetarako larrialdi-plana

Berdintasun-plana

Segurtasun-sistemak mantentzeko plana

Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana

Segurtasun-plana

Plan estrategikoa

Giza Baliabideen plan estrategikoa
Inbertsio-politika
Datu-babeserako politika
Informazioaren Segurtasun Politika
Kexu eta iradokizunen arretarako prozedura
Gordailuak kudeatzeko prozedura
Museoaren Bilduma kudeatzeko prozedura
Maileguak (ingoing/outgoing) kudeatzeko prozedura
Artelanen hornikuntzen inbentarioa kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura
Lanean hasteko eta langileen barne-sustapenerako prozedura
Artelanak sartzeko prozedura
Pertsonen poztasuna eta konpromisoa neurtzeko prozedura
Museoaren irudia erabiltzeko prozedura
Artelanak eskuratzeko prozedura
Museoaren Bilduma agerian adierazi eta inbentariatzeko prozedura
Lan-jarduera ebaluatzeko prozedura
Artelanen enbalajeak fabrikatzeko prozedura
Haurdunaldia babesteko prozedura
Prestakuntza Planaren prozedura
Artelanen prebentzioko artapena eta artapen zuzentzailea egiteko prozedurak
Ebakuazio-prozedurak
Aduanen eta esportazio- zein inportazio-baimenen kudeaketarako prozedurak
Finantza-kudeaketa eta -kontrolerako prozedurak
Boluntarioen programa
Lankidetzeta-programak ezintasunak kontuan hartzeko lan egiten duten erakundeekin
Sexuan oinarritutako jazarpen eta jazarpen sexual edo moralaren kontrako
protokoloa
OSASUN proiektua
Zilarrezko Q-a (EFQM)
ARHOE saria
Erakusketen kudeaketa-sistema (SGE)

ISO 170.001 aruari lotutako erabilerraztasun unibertsala kudeatzeko sistema

Familiarekiko Arduratsua den Enpresa (EFR) ziurtapenari lotutako bateragarritasuna
kudeatzeko sistema

ISO 14.001 aruari lotutako ingurumena kudeatzeko sistema